



MOKO eta KAPMELE

mti



Trenbidea estaltzeko lehen urratsak

Renfek Zubiaurre pasealekuan trenbidea estaltzeko proiektu lehiaketa deitu du. Lehiaketan parte hartzeko epea apirilaren 14an bukatuko da eta, Renfek jakinarazitakoaren arabera, maiatzean beste lehiaketa bat egingo da proiektua gauzatzeko eta lanak egiteko. Aurreikusitakoaren arabera, Zubiaurre pasealekuko 430 metro koadroko trenbide zatia estaliko du Renfek. Bertan, pasealeku bat, plaza bat eta berdeguneak egingo ditu. Horrez gain, lur azpiko geltokia erakiko du, egungoaren orde.



Hitz eta pitz

Zinema eta telebistaren arinkeriaz

Isabel Alba gidoilari eta irakasleak "Baby spot" estreinako eleberrria kaleratu berri du, eta elkarrizketa egin diote Gara egunkarian. Gidoilariaren hitzetan, "zinemak gutxitan erakusten du funtsezko zerbait, edo niri behintzat ez dit adierazpide bezala balio. Dena dela, telebistan gauzak are okerrago daude". Ikus-entzunezkoen arinkeria dela eta, literatura, "angustiak ahazteko" tresnatzat du Albak. Ildo horretatik, liburua-aren osagarrietako bat arazo soziala da. "Batzuetan bizitzako osagai balira bezala ikusten ditugu giza arazoak, baina sistema baten ondorio besterik ez dira".



LEHIAKETA



Hamar sarrera ditugu Leo Basiren "12 de setiembre" antzezlanari Egia kultur etxean ikusteko. Emanaldia apirilaren 10ean, osteguna, 20.00etan izango da. Astelehenean, hilak 7, 10.00etatik aurrera 943467181 telefono zenbakira deitzen duten lehen bost lagunek bina sarrera eskuratuko dituzte.

Joan den asteko irabazleak:

"Tren de mercancías antzezlanari"

Edurne Garmendia
Fran Gil de Muro

Asun Berasategi
Biki Murua

Edurne Sarasola
Garziarena